



Izena: Abizena 1 Abizena 2  
Kalea/ Izena, Z – solairua, hizkia  
NNNNN-Herria, TH



Jaun/Andre hori: Izen-Abizenak,

Jakinarazten dizut 2023ko abenduaren 31n elektrizitatearen bonu sozialaren onuradun izateagatik  
**Bonu Sozial Termikoa 2024 deialdiko onuradun zarela.**

Gizarte-bonu termikoa zuzeneko laguntza bat da, erabilera termikoetarako (berokuntza, ur bero sanitarioa edo sukaldea) energia-horniduraren gastuak konpentsatzeko. Eusko Jaurlaritzako Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritzari dagokio gastu horiek ordaintzea.

Dagokion laguntza hauxe da: **NNN,NN euros.**

Ez daukagu zure banku-konturik laguntza ordaindu ahal izateko, beraz, gutun hau jaso orduko, **10 egun balioduneko epean** nahi duzun banku-kontua jakinarazi behar diguzu.

Guri komunikatzeko, edozein gailu elektronikotik (telefono mugikorra, tableta, ordenagailua) eskura daitekeen inprimaki elektronikoa duzu (honekin **ordainketa aurreratu** ahal izango da), helbide honetan:

<http://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1112506>

Inprimaki horretan zure identifikatzailea (NAN/AIZ) eta erreferentzia-kodea sartu behar dituzu:

**NNNNNN**

Aurrez aurre egin nahi baduzu, gutun honekin batera jasotako banku-kontuaren komunikazioari buruzko **I. eranskina** bete ahal izango duzu, eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan aurkeztu 08:00etatik 19:30era bitartean (aurretiaz ordua eskatu behar duzu interneten edo 945019000 telefonoan), udaletxean edo Correos-en.

Laguntzari **uko egin** nahi izanez gero, gutun hau jaso eta **10 egun balioduneko epean** egin beharko da. Horretarako, jasotako **II. eranskina** bete beharko duzu gutunarekin batera, eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan (ordua eskatuta), udaletxeetan edo postetxean aurkeztu..

Informazio gehiago duzu gure web orrian, aurretik aipatutako estekan,, 012 telefonora deituz edo [BonoSocialTermico@euskadi.eus](mailto:BonoSocialTermico@euskadi.eus) helbidera mezu elektroniko bat bidaliz.

Vitoria- Gasteiz, 2025eko maiatza

Maria Antonia Olabarrieta Ibarrondo  
BIZITZA BETERAKO LAGUNTZEN ZUZENDARIA